

SARRERA.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an hasieran onartutako Etika eta Jokabide Kodeak, zeina gaur egun 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago, ezartzen du Etika Publikorako Batzordeak txosten bat egingo duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta haren sektore publikoko kargudun publikoek Etika eta Jokabide Kodea betetzen dutela egiaztatzeko. Txostenak gomendioak jaso ahal izango ditu, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio. Txostenean jasotako ondorio eta gomendioak publikoak izango dira.

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak (EPB) 2024. urtean zehar egindako lana erregistratzea da memoria honen xedea, Gobernu Kontseiluari ezagutzera eman eta ondoren haren zabalkunde publikoa egiteko.

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN OSAERA.

Gobernu Kontseiluak 2016ko azaroaren 22an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta haren sektore publikoko kargudun publikoen Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginak ezartzen du Etika Publikorako Batzordea nola sortu eta osatuko den:

- Administrazio publikoaren alorreko eskumenak dituen sailburua, batzordeburu arituko dena.
- Enplegu publikoaren alorreko eskumenak dituen sailburuordea.
- Erakundeen etikarekin, zuzenbidearekin edo gobernantzarekin lotutako gaietan esperientzia, gaitasun eta ospe profesional egiaztatua duten bi pertsona, sektore publikotik zein pribatutik etor daitezkeenak, Eusko Jaurlaritzak izendatuak.
- Eusko Jaurlaritzako goi-kargudun bat, idazkari-lanak egingo dituen (hitzarekin baina botorik gabe).

Beraz, testuak berak ezartzen du norkosatzen duen Batzordea: alde batetik, administrazio publikoaren arloan eskumena duen saileko titularra, enplegu publikoaren arloan eskumena duen sailburuordea eta idazkari-eginkizunak betetzen dituen goi-karguduna, hitza bai baina botorik ez duena, eta, beste alde batetik, Gobernu Kontseiluak erabakitako bi pertsona, erakundeen etikarekin, zuzenbidearekin edo

gobernantzarekin lotutako gaietan esperientzia, gaitasun eta ospe profesional egiaztatua duten pertsonen artean izendatuak.

Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez, Elsa González Esteban eta Fernando Tapia Alberdi EPBko kide izendatu ziren, aipatutako gaietan duten esperientziagatik eta gaitasun profesionalagatik —izendapen horiek 2024. urtearen amaieran berretsi ziren—.

Etika Batzordeko idazkaria, berriz, Gobernu Kontseiluaren 2024ko urriaren 22ko Erabakiaren bidez izendatu zen.

Legegintzaldi honetako aldaketak kontuan harturik, honela osatuta geratzen da Etika Publikorako Batzordea:

- **Batzordeburua:** María Ubarretxena Cid (Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua 2024ko ekainaren 25etik).
- **Batzordekidea:** Maite Barruetabeña Zenekorta (Enplegu Publikoko sailburuordea 2024ko azaroaren 12tik).
- **Batzordekidea:** Elsa González Esteban (batzordekide izendatua Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez).
- **Batzordekidea:** Fernando Tapia Alberdi (batzordekide izendatua Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez).
- **Idazkaria:** Xabier Ochandiano Martinez (Erakunde Harremanetarako sailburuordea 2024ko abuztuaren 3tik, eta EPBko idazkaria 2024ko urriaren 22tik).

Indarrean dagoen Etika eta Jokabide Kodearen testuak ez du aldaketarik izan 2024an.

MEMORIAK AINTZAT HARTZEN DUEN ALDIAN AZTERTU ETA EBATZITAKO GAIAK

2024an, EPBk 5 erabaki hartu zituen. Aipatutako bost erabakietatik bat salaketa baten ondorio izan zen, eta gainerako lauak kargudun publiko batek edo entitate publiko batek egindako kontsulten ondorio.

Grafikoki adierazita, eman berri dugun informazioa taula honetan laburbil daiteke:

2024. URTEA	
Salaketa edo kexa	1
Kontsulta	4
Guztira	5

Beste behin, hartutako erabakien kopuruari dagokionez, nabarmentzekoa da kontsulten ehunekoa handiagoa izan dela salaketena edo kexena baino; zehazki, memoria honek adierazten duen urtean, 2024an, EPBra iritsitako gaien % 80 kontsultak izan dira, eta % 20, berriz, salaketak edo kexak.

Hainbat eta hainbat memoriatan adierazi den moduan, joera hori errepikatu egiten da 2013an Etika Publikorako Batzordea lanean hasi zenetik, eta horrek erakusten du kargudun publikoek benetako kezka dutela Etika eta Jokabide Kodean ezarritakoa betetzeko.

Beste behin, nabarmentzekoa da zenbait kontsulta egin direla zitazio judizialekin edo Fiskaltzatik hasitako ikerketekin lotuta; zehazki, 2024an, gai horiekin lotutako 3 kontsulta egin zituzten kargudun publikoek.

2024. urtea izan da EPBk kasu gutxien bidali eta aztertu dituen urteetako bat.

Beste behin ere adierazi behar dugu Etika Publikorako Batzordearen erabaki guztiak aho batez hartu direla.

Komeni da gogoratzea, halaber, EPBren erabaki oro anonimizatuta argitaratzen dela dagokion webgunean.

EPBk 2024an hartutako erabakien alderdirik aipagarrienak hauek dira:

a) Ondasun eta lursailen titulartasunari buruzko salaketa.

EPBra posta arruntez helarazitako idazki baten bidez, norbanako batek salatu du, haren ustez, Eusko Jaurlaritzako kargudun batek Etika Kodea urratu duela.

Idazkian adierazitakoaren arabera, kargudunak salatzailearen higiezinarekin eta lursailekin mugakide den higiezin bat eskuratu zuen, eta, orduan, demandatzailearen ustez desegokiak diren eta Etika eta Jokabide Kodearen urraketa izan litezkeen jokabideak egiten hasi zen. Idazkian dioenez, presio horiek guztiak epaitegietan salatu dira; hau da, salaketen xedea ez da izan lursailen jabetza, baizik eta albo-gertaerak — alegia, liskarrak—.

Guztia aztertu eta eztabaidatu ondoren, EPBk ez du aurkitu Etika eta Jokabide Kodearen balio, printzipio eta jarraibideak urra ditzakeen jokabiderik edo zantzurik.

b) Ikertu gisa judizialki deklaratzera deitutako kargudun publikoei buruzko kontsultak.

EPBk 2024an aztertutako bost kasuetatik lau kargudun publikoek parte hartu duten jarduketara judizialei buruzkoak dira.

Etika eta Jokabide Kodeak 15.d) apartatuan ezartzen du kargudun publikoek Batzordeari jakinarazi behar dizkiotela prozedura judizial penalen barruan ikertu gisa deklaratzeko jasotzen dituzten zitazioak.

Azken ekitaldietan, EPBk zenbait erabaki hartu ditu kasuistika hori dela eta; hots, epaitegietako zitazioei buruzkoak, edo prozesu judizializatuarekin lotutako kontsultei buruzkoak.

Lau kasu horietatik hirutan, EPBk erabaki hau hartu du:

“Ikusita ikerketa zein inguruabarretan egin den eta aintzat hartuta erabaki honetan jaso diren kontsiderazioak, kontsultaren egileak euts diezaioke betetzen ari den karguari, harik eta auzitegi edo epaile eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeke autoa ematen duen arte”.

Kasuetako batean, zera proposatu da zuzenean: aurkeztutako salaketa artxibatzea, zeren eta ez baita hauteman Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioak, printzipioak eta jarraibideak urratu izanaren zantzurik haren jokabidean, EPBra igorritako eta aztertutako dokumentazioaren eta informazioaren arabera.

Lan-baimenarekin lotutako kontsulta.

Azaroan, goi-kargudun publiko ohi batek kontsulta bat bidali zuen EPBko idazkaritzaren helbide elektronikora, lan-eskaintza bat onartzeko baimenari buruz galdetzeko.

Gai hori behin eta berriz errepikatzen da EPBn, eta Batzordeak hainbat aldiz eman du bere iritzia.

Etika eta Jokabide Kodeak ez ditu arautzen Gobernuak goi-kargudun ohiek lan-eskaintzak direla-eta eskuratu behar dituzten baimenak.

Idazkariak berak erantzun zion kontsulta-egileari, eta adierazi zion ezen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudia —eta, zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzea— jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubidea berariaz arautzen duen arau juridikoan. Hain zuzen ere, arau horretan diziplina- eta zehapen-araubidea ezartzen da, zeina, legezketasun-printzipioari jarraituz, lege-mailako testu baten bidez arautua baitago; zehazki, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen bidez.